



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko martxoaren 29an

27 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdiak direla-eta, deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun, luzapen eta abarrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridiko erabiltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Azagran gas naturala jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Gordailuetan dauden zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden itauntzen duen galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa (9. or.).
- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko maiatzean bidali dituen ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (13. or.).
- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko ekainean bidali dituen ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (23. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (35. or.).

**F saila:
GALDERAK**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdiak direla-eta, deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun, luzapen eta abarrei buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdiak direla-eta, deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun, luzapen eta abarrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko bozeramaileak, 2000ko urtarrilaren 7an, galdera bat egin zuen 1995eko urtarrilaren 1etik gaur arte izan diren deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun (eta luzapen), atxikipen edo lekualdatzei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren galdera, zerrenden bidez emana.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko otsailaren 9an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu zerrendak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizka-

ri Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeko bozeramaileak, 2000ko urtarrilaren 7an, galdera bat egin zuen aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1995eko urtarrilaren 1etik gaur arte eginiko ordainketei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ez dago une honetan eskura 1995 eta 1996 urteetan aparteko orduengatik eginiko ordainketen gaineko informazioa, datu horiek Antolamenduko Zuzendaritza Nagusian daudelako eta, beraz, informazioa transferitu beharko da, lehendabizi, gero behar bezala prozesatzeko. 1997 eta 1999.

urteetako zenbatekoen zerrenda honen amaieran dago erantsirik.

Aparteko orduak ordaintzeko proposamena langileak atxikirik dauden zentroak egiten du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko otsailaren 9an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu zerrenda foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Euskal Herritarrok” Parlamentuko Taldeko bozeramaileak, 2000ko urtarrilaren 7an, galdera bat egin zuen produktibitate osagarri gisa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1995eko urtarrilaren 1etik gaur arte eginiko ordainketei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ez dago une honetan eskura 1995 eta 1996. urteetan produktibitate osagarri gisa eginiko ordainke-

ten gaineko informazioa, datu horiek Antolamenduko Zuzendaritza Nagusian daudelako eta, beraz, informazioa transferitu beharko da, lehendabizi, gero behar bezala prozesatzeko.

Produktibitate osagarri gisa ordainketak egiteko arrazoiei dagokienez, soilik esan behar da ordainketa horiek urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 11.1 artikuluan aurreikusitako egoeren arabera egiten direla, eta ezinezkoa dela une honetan zehaztea aipatu arrazoiak zein diren ordainketa eragin duen egoera bakoitzean, 1995etik gaur arte.

Produktibitate osagarria ordaintzeko proposamena langileak atxikirik dauden zentroak egiten du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko otsailaren 9an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu zerrendak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridiko erabiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridikoa erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentariak, 2000ko urtarrilaren 17an, ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridiko erabiltzeari buruzko galdera bat egin zuen. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Kontuan izanik osasun arloko eskumen osoa eta egin izan diren adierazpenak, Nafarroako Gobernuak jarraitu egin behar al du bermatzen Foru Komunitatean ez dela aplikatuko fundazioen formula juridikoa, ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko?

Nafarroako Gobernuak, orain lehen bezala, ez du beharrezkotzat jotzen fundazioen formula juridikoa erabiltzea Osasun Departamentuaren menpeko zentroak eta zerbitzuak kudeatzeko.

2. Programa-kontratua duten ospitaleek gaixoak beste zentro batzuetara igortzen dituztenean, beren aurrekontuen kontura, beren gain hartu behar dute igortze horrek dakarren kostu ekonomikoa. Egungo kudeaketa sistema deszentralizatuan, nola bermatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaixoek behar duten osasun-tratamendua izanen dutela eta, ingresaturik dauden ospitaleetan baliabide egokiak ez daudenean, beste ospitale batzuetara igorriko dituztela?

Galdera barrenean zuzena ez den baieztapen bat dago, alegia, programa-kontratua duten ospitaleek, beren aurrekontuen kontura, beren gain

hartu behar dutela gaixoak beste zentro batzuetara igortzeak dakarren kostua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitale batek ere ez du bere gain hartu behar izaten gaixoak beste zentro batzuetara igortzeak dakarren kostua, zentro hauek sare publikokoak zein pribatu itundukoak izan, Foru Komunitatekoak zein beste osasun zerbitzuetakoak.

Osasun laguntza ez etetea bermaturik dago, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleak erreferentziako ospitaleak direlako; haien premia dagoenean, dela giza eta teknologi baliabideengatik, dela tratatu beharreko patologiagatik, erabiltzen ahal dira, inolako mugarik gabe.

Horrez gain, gaixoak beste zentro batera igortzea beharrezkoa izanez gero, Osasun Sistema Nazionaleko zentro publikoetara eta beste zentro pribatu itundu batzuetara ere jotzea daukagu.

3. Behar diren baliabideak beste ospitale batean edo Nafarroatik kanpo daudenean, ematen al zaie gaixoei eta haien senideei beste tratamendu aukera horien berri?

Oro har, gaixoei "argibide ondoko baimena" izeneko agiri baten bidez ematen zaie informazioa, eta bertan honako hauen berri ematen zaie: aplikatzen diren metodo diagnostiko eta teraupetikoak, zertan dautzan, zein diren horien abantailak eta arriskuak, proposatutako metodoen alternatibak. Bestalde, gaixoa beste ospitale batera eraman behar izaten denean, hala azaltzen zaie gaixoei edo/eta haien senideei.

4. Jakin nahi dugu zer zerbitzu eta programa garatu diren honako arlo hauetan: anbulatorioko kirurgiari laguntzea, ospitalean ingresatu gabeko kirurgia handia eta baliaezintasun handia duten pertsonen etxean jarraipena egitea.

Anbulatorioko kirurgia handiaren programa bat abian jartzeak protokolo bat egitea eskatzen du, honakoak biltzeko:

- anbulatorioetan tratatu daitezkeen patologiak.
- gaixoak hautatzeko irizpideak.
- gaixoei eman beharreko informazioa.
- programak egitura aldetik dituen eskakizunak.

– gaixoaren jokabidea, zentroan dagoen bitartean eta gero, etxean.

– bete beharreko zainketa.

– eta garrantzitsuena, ospitalarekin etengabe harremanetan egoteko telefono zenbaki bat, edozein premiatarako edo kontsultaren bat egiteko.

Anbulatorioko kirurgia handiko programa bat abian jartzeko behar den azpiegitura, zentro bakoitzeko zerbitzu hauen hedaduran oinarritzen da: Anestesia eta Konorteratzea, Kirurgia, Erizaintza, Zerbitzu Administratiboak eta Orokorrak.

Baliaezintasun handia duten pertsonak, laguntza etxean behar dutenak, Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza diseinaturiko "ETXEKO LAGUNTZA" izeneko programan daude aurreiku-

sirik. Programa horri jarraikiz, Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldea (sendagilea, erizaina edo gizarte laguntzailea) gaixoaren etxera joaten da, behar dituen laguntza eta zainketak ematera.

5. Zer konpentsazio ekonomiko ordaintzen ari zaie osasun etxeetako osasun-langileei, kostu ekonomikoak murrizteko?

Oinarrizko Osasun Laguntzan ez da inolako zenbatekorik ordaindu kostu ekonomikoak murrizteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko otsailaren 16an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, 2000ko urtarrilaren 20an, Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egia al da 1999ko abenduaren azken egunetan, Eguberrietako jai egun horietan, Tuterako Ospitaleko larrialdi zerbitzua, beste urte sasoi batzuekin konparatuta, ezberdina eta okerragoa izan dela? Uste al du Gobernuak esan daitekeela ez zela herritarrik hartzerik izan zenbait momentutan?

Tuterako Ospitaleko larrialdi zerbitzua ez da ohikoaz ezberdina izan praktika klinikoari dagokionez; zerbitzu horretan, beste edozein ospitalekoan bezala, bertaratzen den pertsona kopuruaren ondorioz gertatzen baitira aldaketak.

Galderak aipatzen duen epean, larrialdi zerbitzuan jasotako eskaeren kopurua % 15 handitu zen, bereziki abenduaren 25 eta 27an eta urtarrilaren 1, 7, 9 eta 10ean. Ezin da inolaz ere esan larrialdi zerbitzua gainezka egon zenik.

Zergatik gertatu zen, Gobernuaren ustez, epe horretan, larrialdi zerbitzuaren kalitatea okerragoa izatea?

Epe horretan osasun laguntzaren kalitatea ez da okerragoa izan.

Egia al da Eguberrietako jai egunetan gaixoak hartzeko 30 ohe gutxiago izan dela?

Zentroaren ohe kopurua ez da inoiz ere jaitsi, bai ordea, okupazio maila handitu, eta une batzuetan % 95ekoa izateraino ailegatu da, baina premia zuen gaixo bat ere ez da ospitaleratu gabe gelditu.

Okupazio hori urtero agertzen diren gripe izurrietan gertatzen ohi da, urteko garaia aldatzen bada ere.

Egia al da egun horietan larrialdi zerbitzuaren bidez ingresatutako gaixoak beranduago pasa zirela geletara, ospitaleko arduradunek langileei buruz hartutako neurrien ondorioz oheak falta zirelako?

Epe horretan, eta gripe izurritearen garaietan, ohe gehiago egoten da okupaturik, baina Reina Sofía Ospitalean ez da, horregatik, gaixorik ospitalez aldatu edo ospitaleratu gabe utzi ohe falta

dela-eta, egun horietan guztietan ohe libreak izan baitziren ospitalean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko otsailaren 14an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Azagan gas naturala jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Azagan gas naturala jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 14ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak Azagan gas naturala jartzeari buruzko galdera bat egin zuen, idatziz erantzun ziezaioten. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

A) Gas Navarra, S.A. enpresa hornitzaileak adierazi du "Ebroren Erriberara gasa eramateko Proiektuan" dauden herrietako etxebizitza guztietan jarri ahal izanen dela gas naturalaren zerbitzua, eta Azagra herri horietako bat da.

B) Berez, ez dago konexio kosturik. Enpresa hornitzaileak otsailaren 15eko 48/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako alta eskubideak bai-

zik ez ditu kobratzen gas kontsumoa hastean. Eskubide horiek, kontsumo txikiko etxeko erabiltzaileendako, 8.600 pezeta dira eta kontsumo ertaineko edo handiko etxeko erabiltzaileendako 10.900 eta 16.200 pezeta dira, hurrenez hurren. Merkataritza edo industria arloko bestelako erabiltzaileendako, berriz, aipatu Foru Dekretuan adierazten da zein diren indarra duten prezioak.

C) Enpresa hornitzaileak adierazten du ez Azagan ez Ebroren Erriberarako Proiektuko beste ezein herritan ere ez dela eskabiderik baztertu.

Gas Navarra, S.A.k uko egin dio hartunea uzteari gas naturala oraingoz erabili behar ez duten etxebizitzetan, beste energia iturri batzuk, gasolioa, kasu, dituztelako. Halere, Gas Navarra, S.A.k adierazi du etxebizitza horiek erabilera eskatzen duten unean egingen dela sarea edo/eta hartunea, eskaitzaileari inolako kosturik ekarri gabe.

Gai honi dagokionez, jakinarazten da Azagra-ko etxebizitzetan zentsoa osatzen duten 900 inguru etxebizitzetatik ia 700etan eskatu dela gas hornidura, eta eskaera horiei erantzun zaiela. Beraz, herri horretan gasa eramateko aukerari oso erantzun ona eman zaio.

Iruñean, 2000ko otsailaren 25ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll.

Gordailuetan dauden zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden itauntzen duen galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak ondoko galdera egin zuen: "Gordailuetan dauden zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden itauntzen duen". Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Foru Diputazioak emandako erantzuna Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak 99-12-31n gordailuetan zituen zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden, eta haien baldintza eta ezaugarriak jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna, informazio honekin:

– Nafarroako Gobernuak 99-12-31n gordailuetan zituen zenbatekoen zerrenda.

– Gordailu horiek dituzten banku-entitateen zerrenda.

– Gordailu bakoitzaren baldintzak eta ezaugarriak, hala nola, epeak eta korritu tasak.

– Gordailuen zerrenda 98-12-31n, "Nafarroako 1998ko Kontu Orokorretan" ageri diren bezala. Kontu horiek azaroaren 15eko 16/1999 Foru Legearen bidez onetsi ziren, I. liburukiaren 81 eta 82. orriak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko otsailaren 28an

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria Francisco Iribarren Fentanes

Nafarroako Gobernuak 99-12-31n gordailuetan zituen zenbatekoen zerrenda

(pezetatan)			
6.100.000.000	1.325.895.067	3.107.788	902.125
5.209.498.492	1.300.000.000	2.527.318	827.654
4.525.873.665	1.226.039.225	2.507.929	744.505
4.300.000.000	1.100.552.356	2.383.270	726.247
4.200.000.000	1.000.000.000	2.201.071	644.080
4.000.000.000	955.593.166	2.124.107	592.643
3.600.000.000	870.169.637	2.051.116	584.405
3.600.000.000	852.539.299	2.040.308	475.510
3.600.000.000	800.000.000	1.928.593	470.514
3.300.000.000	800.000.000	1.714.973	440.289
2.601.941.658	700.000.000	1.676.425	350.451
2.562.434.387	569.980.250	1.357.348	312.293
2.554.801.132	410.255.662	1.290.479	286.209
2.481.477.311	274.176.892	1.248.267	285.782
2.200.000.000	175.388.800	1.207.446	122.168
1.900.000.000	144.802.823	1.142.683	84.283
1.800.000.000	142.193.162	1.127.122	30.385
1.611.239.227	101.143.772	1.072.870	5.771
1.573.102.358	80.000.000	1.063.345	
1.546.138.502	9.309.410	1.024.853	
1.409.946.939	5.716.847	997.745	

Guztira: 77.563.890.409

Nafarroako Gobernuak 99-12-31n gordailuak zituen banku-entitateen zerrenda

Entitatea	
B.N.P. España	Banco Zaragozano
Banco Atlántico	Bankinter
Banco Bilbao-Vizcaya	Bankoa
Banco Central-Hispano	Barclays Bank S.A.E.
Banco de Comercio	Caja de Ahorros de Cataluña
Banco de Crédito Local de España	Caja de Ahorros de Galicia
Banco de España	Nafarroako Aurrezki Kutxa
Banco de Sabadell	Iruñeko Kutxa
Banco de Santander	Caja de Madrid
Banco de Valencia	Caja España
Banco de Vasconia	Euskadiko Kutxa
Banco de Vitoria	Caja Postal
Banco Español de Crédito	Rural Kutxa
Banco Exterior de España	Citibank
Banco Guipuzcoano	Credit Lyonnais
Banco Herrero	Deutsche Bank

Banco Hipotecario	Ibercaja
Banco Mapfre	La Caixa
Banco Pastor	Lloyds Bank (BLSA) Ltd.
Banco Popular	Solbank SBD, SA

Nafarroako Gobernuak 99-12-31n zeuzkan gordailuetako bakoitzaren baldintzak eta ezaugarriak

- Mugaeguna 00-II-4an zeukaten hiru hilabeteko eperako gordailuak: 16
 - 6 gordailu %3,50ean (Oinarria: 360)
 - Gordailu 1 %3,51n (Oinarria: 360)
 - Gordailu 1 %3,53an (Oinarria: 360)
 - Gordailu 1 %3,55ean (Oinarria: 360)
 - Gordailu 1 %3,56an (Oinarria: 360)
 - 3 gordailu %3,60an (Oinarria: 360)
 - Gordailu 1 %3,61ean (Oinarria: 360)
 - 2 gordailu %3,63an (Oinarria: 360)
- Mugaeguna 00-I-25ean zeukaten hiru hilabeteko eperako gordailuak: 1
 - Gordailu 1 %3,375ean (Oinarria: 360)
- Egun bateko eperako gordailuak, berriztapen automatikodunak: 22

- Mibor-ari loturiko 7 gordailu (Oinarria: 360)
- Mibor-ari loturiko gordailu 1 (Oinarria: 360) gehi 5 base-puntu
- Mibor-ari loturiko gordailu 1 (Oinarria: 360) ken 6 base-puntu
- Mibor-ari loturiko gordailu 1 (Oinarria: 365) gehi 13 base-puntu
- Mibor-ari loturiko gordailu 1 (Oinarria: 365) gehi 11 base-puntu
- Mibor-ari loturiko 4 gordailu (Oinarria: 365) gehi 10 base-puntu
- Mibor-ari loturiko gordailu 1 (Oinarria: 365) gehi 6 base-puntu
- Mibor-ari loturiko 3 gordailu (Oinarria: 365) gehi 5 base-puntu
- Mibor-ari loturiko 3 gordailu (Oinarria: 365)
- %0,36ko ordainketa duten kontu korranteetako gordailuak: 42

(Oharra: Nafarroako Kontu Orokorretako I. liburukiaren 81 eta 82. orriak Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan daude).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia onestea.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko martxoaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

1. oinarria. Arau orokorrak

1.1. Deialdi honek xede du Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatua gertatzen den izangaiak Biltzarreko funtzionarioentzat ezarritako eginkizunak, eskubideak eta betebeharrak edukiko ditu; zehazki, Gelazainen Kidegokoek dituztenak.

1.3. Lanpostua D mailakoa izanen da, eta maila horri dagozkion ordainketak izanen ditu, gehi Nafarroako Parlamentuan indarra duen plantilla organikoan zehazten diren osagarriak.

1.4. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edozein unetan aldatu ahalko dute.

1.5. Deialdi honetako lanpostu kopuruari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio; hain zuzen, Epaimahai Kalifikatzaileak deialdia egin

duen organoari lehiakideen zerrenda –erdietsitako puntuazioaren arabera– igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria. Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) D mailaren barneko funtzionarioa izatea.

b) Eskola-graduatu, lehen mailako lanbideheziketa edo balio bereko titulu baten jabe izatea.

c) Gelazain edo ordenantza lanposturako izendatua izatea.

d) Jatorrizko destinoan, nondik lekuz aldatu nahi baitu, bere jabetzako lanpostuan benetako zerbitzuan urtebete emana izatea.

Lanpostua gorderik izan gabe, nahitaezko edo borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek lekualdatze lehiaketa honetan parte hartu ahal-ko dute, baldin eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte; horrela, jarduneko zerbitzuan berriz sartuko dira eta lanpostua behin betiko adjudikatuko zaie.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honetako 3. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko dira, eta baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen direla ulertuko da. Halaber, deialdiko 2. oinarriko 1. ataleko baldintza horiek hautapen prozesuak irauten duen denbora guztian bete beharko dituzte izangaiak, eta prozesu hori izendapenaren unean amaitzen dela ulertuko da.

3. oinarria. Eskakerak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, zeina eredu ofizialaren arabera (deialdi honetako II. eranskina) izango baita. Hartan, ondoko hauek azaldu beharko dituzte: izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta, baldin badute, telefonoa.

3.2. Eskareri honako hauek erantsiko zaizkio:

– Deialdi honetako 2. oinarriak aipatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla frogatzen duten agiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua –lehenengo eranskinean agertzen den baremoari jarraikiz sailkatuko dira– eta haien frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari Jaunari igorriko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Nagusian, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontantzen hasita, hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda horretan onartutako izangaien izen-deiturak agertuko dira.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik ez bada aurkeztu, Parlamentuko Lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Izangai bat ere onar-

tzen ez bada, lehiaketa hutsik gelditu dela adieraziko da.

5. oinarria. Epaimahai Kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduera.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketa epaitu behar duen Epaimahaia osatuko duten kideak:

Mahaiburua: Joséé María Aierdi Fernández de Barrena jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Mahaikideak:

1go. María Jesús Martínez Orduña andrea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzarrak izendatua.

2gn. Pablo García Yáñez jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria; mahaikide hori izanen da idazkari arituko dena.

5.2. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epearen barruan eratu da Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahaia eratzeko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, Epaimahaiko kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Mahaiburuak kalitatezko botoa erabili ahal izanen du.

5.4. Deialdi honen oinarriak interpretatu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak Epaimahaiak ebatziko ditu; halaber, Epaimahaiak ebatziko du aurreikusita ez dauden kasuetan zer egin behar den.

6. oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta frogatutako merezimenduak deialdi honetako I. eranskineko baremoaren arabera kalifikatu eta puntuatuko ditu Epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak alegatu eta agiri bidez frogatuko dira izangai bakoitzak lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatu ahal izango ditu lehiakideek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inola ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik, eta ezin izanen du eman merezimenduei buruzko idatz-zati bakoitzean adierazitako puntuazioa baino altuagorik.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, Administrazio Publikoerik zerbitzuak ematen antzinasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Horrela ere berdinketak irauten baldin badu, lehiakide zaharrenaren alde ebatziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, Epaimahaiak parte-hartzaileek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du, interesatuek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeri zaiena alegatu ahal izan dezaten.

7. oinarria. Izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, eta lanpostuen esleipena.

7.1. 6.5 oinarrian aipatzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren, Epaimahaiak izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, Mahaiak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

7.2. Biltzarreko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duen izangaiari esleituko dio lanpostu hutsa, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

8. oinarria. Lanpostua hartzea.

8.1. Izendapenari buruzko Erabakia jakinarazi eta ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua izendatutako lehiakideak.

8.2. Aipatu epean jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jarduketetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da –behar adina justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu–, eta, kasu horretan, aurreko oinarrian adierazitako zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka, ondoko errekursoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerabideko birjarpeneko errekurtsua, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Parlamentuko Lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko burutzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

I. ERANSKINA

Merezimenduak balioesteko baremoa

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

1) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, deialdian eskaintzen den lanpostuaren berdinak edo antzekoak diren lanpostuetan: puntu bat urte bakoitzeko.

2) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdian eskaintzen den lanpostuaren berdinak edo antzekoak diren lanpostuetan: 0,75 puntu urte bakoitzeko.

3) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, deialdikoa ez beste lanpostuetan: 0,25 puntu urte bakoitzeko.

4) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdikoa ez beste lanpostuetan: 0,20 puntu urte bakoitzeko.

– Oharrak:

1go. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioz dagokion puntuazioa emanen da.

2gn. a) letra honi dagokion puntuazioa gehiezin ere 30 puntukoa izanen da.

3gn. Lanaldi partzialez emandako zerbitzuen kasuan, horren arabera zatia kenduko da.

4gn. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira balioetsiko.

5gn. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon deneko edo unitate organiko bateko zuzendari edo buru lanetan aritu deneko aldiatiko zerbitzuak kontaktuko dira egotera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekitaldietan

parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko bakoitzeko edo haren balioekideko (10 ikastordu); gehienez ere, 7 puntu.

– Oharrak:

1go. Balioetsi beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu-zatikiak hainbanatuko dira.

2gn. Iraupena zenbat ikastordutakoa izan den agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen bailiren balioetsiko dira.

3gn. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak bailiren balioetsiko dira.

4gn. Puntuazio berarekin balioetsiko da, erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik eginiko edo Administrazioak ontzat emandako prestakuntza ekitaldietan parte hartzea. Azken horien artean, espresuki, sindikatuak Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: 2 puntu, gehienez ere, Epaimahaiak eginiko balioespenaren arabera, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekitaldiak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, puntu bat, Epaimahaiak haien iraupena kontuan hartuz eginiko balioespenaren arabera.

– Oharrak, b) idatz-zati osoari buruzkoak

1go. Deialdiko lanpostuarekin zerikusia duten merezimenduak bakarrik balioetsiko dira idatz-zati honen barruan.

2gn. b) idatz-zati honetako gehienezko puntuazioa 10 puntukoa izanen da.

II. ERANSKINA

Izen-deiturak: _____

Adina: _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): _____

Telefono zk.: _____

AZALTZEN DUT:

Gelazain-lanpostu bat lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuko Mahaiak ____ (e)ko _____ ren ____ (e)an hartutako Erabakiaren berri izan, eta hartan parte hartu nahi dudala.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den lekualdatze-lehiaketan onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak erantsi ditut.

Iruñean, 2000ko _____ (ren) ____ (e)an

Nafarroako Parlamentuko Lehendakari Jauna

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko maiatzean bidali dituen ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bitartez gauzatuak aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko ekainaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1999ko maiatzean Nafarroko Parlamentura bidali ziren ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bidez gauzatuak aurrekontu-aldaketen legezotasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 28an egindako bilkuran, haxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu ebazpenei, foru aginduei eta erabakiari buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko otsailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

“**145/1999 EBAZPENA**, apirilaren 6koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana; haren bitartez, kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzea baimendu du.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak egin duen eskaria. Hartan, gastuen kreditu-gehikuntza egiteko eskatzen du gastuen ondoko kontusailean hain zuzen: “Obligazio fidantzuak ez betetzeagatik sortutako ordainketak”; lerroa, 06840-9; zenbatekoa, 1.087.500.034 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura eginen da: “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”; lerroa, 36695-5.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru legeko 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 11420-8401-6124; proiektua, 12002; lerroa, 06840-0; izena, “Obligazio fidantzuak ez betetzeagatik sortutako ordainketak”; zenbatekoa, 1.087.500.034 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ondare Zerbitzura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko apirilaren 6an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**159/1999 EBAZPENA**, apirilaren 13koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzeko eskatu du.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kreditu-gehikuntza eskatu du gastuen ondoko kontusailean: izena, “Sendagaiak”; lerroa, 23870-4; zenbatekoa, 12.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoekin finantziatuko da: izena, “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”; lerroa, 36695-5.

1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikularen 6. idatz-zatiko d) letran eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen aurrekontuan kreditua gehitzea gastuen ondoko kontusailean: 51200-2215-4139; proiektua, 49000; lerroa, 23870-4; izena, “Sendagaiak”; zenbatekoa, 12.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko apirilaren 13an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“160/1999 EBAZPENA, apirilaren 13koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, aurrekontua kreditu-transferentziaren bidez aldatzea baimendu du.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Nafarroako Estatistika Institutuak kreditu-transferentzia eskatu du, hain zuzen ere ondoko kontusailetik: izena, “Estatistika demografikoak, sozialak eta ingurumenkoak”; lerroa, 07760-3; zenbatekoa, 800.000 pezeta. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: izena, “Instalazioak”; lerroa, 07690-9.

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikulua 2. idatz-zatiak hauxe xedatu du: “Nafarroako Gobernuak kontseilariak, beren departamentuen baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete”. Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea; hain zuzen ere, kontusail honetatik: 10210-6092-3-5512; proiektua, 15000; lerroa, 07760-3; izena, “Estatistika demografikoak, sozialak eta ingurumenkoak”. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: 10200-6031-5512; proiektua, 15000; lerroa, 07690-9; izena, “Instalazioak”; zenbatekoa, 800.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Nafarroako Estatistika Institutua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailera delegatura.

Iruñean, 1999ko apirilaren 13an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“164/1999 EBAZPENA, apirilaren 15ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzeko eskatu du.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Langileria Zerbitzuak eskaria egin du; kreditu gehitzeko eskatzen du ondoko kontusailera: izena, “Epaia betearaztea”; lerroa, 02300-7; zenbatekoa, 1.380.685 pezeta (Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langile jakin batzuentzako produktibitate osagarriaren ordainketa osatzeko). Ondoko kontusailera izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: izena,

“Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”; lerroa, 36695-5.

